

# Denak ez du balio nazioarteko inbertsio-gatazkak ebazteko orduan edo giza eskubideen babesa inbertsio-arbitrajean

Ixusko Ordeñana Gezuraga, Sara Arruti Benito\*

EHUko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea,

\*Zuzenbidea+EAZ gradu bikoizduna eta Zuzenbide Prozesaleko doktoregaia

Inbertsio-arbitrajearen erabilera nabarmenki areagotu da azken hamarkadetan gatazkak ebazteko tresna egokia delako ustean. Testuinguru horretan, ez bakarrik mundu akademikoan baita praktikoan ere, gatazkak konpontzeko prozesu horrek hirugarrenen giza eskubideengan sor ditzakeen kalteak eta eraginak mahai gainean jartzen hasi dira. Hortik abiatuta, lan honek inbertsio-arbitrajean giza eskubideen bermea aztertzea du xede. Lehenik eta behin, Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidea eta, zehazki, inbertsio-tratatuak aztertuko ditugu, inbertitzailen babes-arauei arreta berezia jarritz. Ondoren, giza eskubideen eraentza orokorra azalduko dugu. Behin aztergai ditugun bi munduak aurkeztuta, haien arteko harremana erakutsi ahalko dugu, hau da, Giza Eskubideen Zuzenbidea arbitraje-prozesuan aplikatzen den eta, hala denean, nola. Halaber, arbitroek hartzen dituzten erabakien norabidea zein den ikusiko dugu. Amaitzeko, giza eskubideen bermea *lege data* ezbaian jartzen duten faktoreak jorratu eta horietan oinarriturik haien bermea handitzeko *lege ferenda* neurriak proposatuko ditugu.

GAKO-HITZAK: Inbertsio-arbitrajea · Inbertsio-tratatuak · Gatazka juridikoa · Giza eskubideak · CIADI.

## Are human rights protected in investment arbitration?

In the last decades, the use of investment arbitration has increased significantly as an ideal instrument for the resolution of legal disputes. In this context, not only in the academic world, but also in the practical one, it has begun to discuss the adverse impact that this process of dispute settlement can generate on the promotion and protection on human rights. That said, the aim of this work is to analyze the guarantee of human rights in investment arbitration. To investigate that complex collision, firstly, we will examine the International Investment Law and specifically the investment treaties. Secondly, we will analyze and describe the main characteristics of Human Rights Law. Once we have described the two worlds that are the starting point of our work, we will study what is the relationship between them. Moreover, we will examine the decisions of the arbitrators. To conclude, we will analyze *lege data* and the factors that affect the guarantee of human rights and, based on them, we will propose measures, *lege ferenda*, to increase the promotion and protection of them in investment arbitration disputes.

KEY WORDS: Investment arbitration · Investment treaties · Legal dispute · Human rights · ICSID.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.116.2021.7>

*Jasotze-data:* 2020-03-23 *Onartze-data:* 2020-04-08

## 1. Sarrera

Azken hamarkadetan, inbertsio-hitzarmenen hazkundeari loturik, nazioarteko inbertsio-arbitrajearen eztanda gertatu dela esan daiteke, urtero-urtero geroz eta kasu gehiago erregistratzen baitira<sup>1</sup>. Leherketa horrek zenbait arrail sortu ditu Giza Eskubideen Zuzenbidearen munduan, gaur egungo inbertsio-arbitraje sistema giza eskubideak eta inbertitzailen eskubideak bereiztera eta bateraezinak izatera bideratuta dagoela baitirudi.

Mundu akademikoan iritziak askotarikoak dira. Erdibidekoak kontuan hartu gabe, alde batetik, inbertsio-arbitraje sistema giza eskubideen babesarekin bateragarria dela pentsatzen dutenak (Karamanian, 2017: 38-41) daude, eta, bestetik, inbertsio-arbitrajea arbuizatzen duten giza eskubideen defendatzaileak ditugu (Gabisa, 2014: 167; Alvarez, 1997: 303-312). Iritziak iritzi, horietaz haratago, datu objektibo legez, zuzenbideko bi elementuen (arbitrajea —gatazkak ebazteko metodo gisa<sup>2</sup>— eta giza eskubideak —zuzenbidearen beraren oinarri gisa<sup>3</sup>—) arteko tentsioa ezin daiteke uka. Arrazoia argia da: zenbait inbertsio-arbitraje prozesutan giza eskubideen bermea zalantzan jartzen da. Testuinguru horretan bi galdera dira nagusi: Zerk eragiten du bi mundu hauen arteko bereizketa eta bateraezintasuna? Eta, batez ere, nola ahuldu tentsio hori?

Galdera bi horiei erantzuna emateko, hots, egun nazioarteko arbitrajea giza eskubideak bermatzen diren edo ez aztertzeko, Giza Eskubideen Zuzenbidearen eta Inbertsio Zuzenbidearen arteko harremanari egin behar diogu so, Giza Eskubideen Zuzenbidea arbitraje-prozesuan aplikatzen den eta, hala denean, zein eratan egiaztatuz. Halaber, giza eskubideen bermea ezbaian jartzen duten faktoreei erreparatuko diegu, jada aurreratu dezakegularik, hasierako hipotesi gisa, gure ustez, tamalez, inbertsio-arbitrajea giza eskubideen lekua oso txikia dela. Azkenik, bi elementuen (arbitrajea / giza eskubideak) tentsioa ahultzeko zer egin daitezkeen galderari erantzunez, giza eskubideen arloan inbertsio-arbitrajearen etorkizuneko erronkak planteatuko ditugu, orain arte eman diren pausoak *lege data* aztertuz eta etorkizunean horien babesa indartzeko *lege ferenda* aurrera eman daitezkeen zenbait ideia proposatuz.

## 2. Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidearen nondik norakoak eta arbitrajea haren eremuan

### 2.1. Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidearen kontzeptua eta haren ezaugarri nagusiak

Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidea globalizazio ekonomikoarekin hertsiki lotuta dago. XIX. mendeko azken hamarkadan hasi eta egun dirauen fenomeno horrek

---

1. Gurekin, zuzenbidearen arlo honetan arbitrajearen arrakasta azpimarratu eta azalduz: Perales, 2020: 306-322.

2. Oro har, gatazkak ebazteko teknika honen inguruan, Estatuak herritarrei eskaintzen dien prozedura gisa: Ordeñana, 2017a: 739-781.

3. Hauen azterketa sakona egiteko, Giza Eskubideen Aldarrikapena abiapuntutzat hartuz, Ordeñana, 2017b.

zera ekarri du: inbertsioen hedapen internazionala eta merkataritza-harremanen askatasuna oztopatzen zuten mugen desagerraraztea. Hori horrela, ez da harritzekoa, azken hamarkadetan, atzerriko inbertsio-fluxu zuzenen handitze nabarmena gertatu izana. Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren arabera (aurrerantzean, UNCTAD), 90eko hamarkadan atzerriko inbertsio-fluxuak laukoiztu egin ziren<sup>4</sup>. Testuinguru horretan, inbertsioak eta inbertitzaileen egoera arautzeko nazioarteko beharrizana sortu zen. Beharrizan horren fruitu, Nazioarteko Inbertsio Zuzenbide izenez ezagutzen duguna jaio zen: estatu inbertsio-hartzailearen ekintzen aurrean, inbertsioa eta inbertitzaile atzerritarra babesten dituzten arauen multzoa. Bere xedeari so eginez, zuzenbide honek, inbertsioei babes internazionala emanaz, inbertitzaileak seguruago sentiaraztea eta inbertsioak egitera erakartzea du helburu<sup>5</sup>.

Nazioarteko Inbertsio Zuzenbideak izaera berezia du, Zuzenbide Publikoko eta Zuzenbide Pribatuko arauak barnebiltzen baititu. Batetik, kontuan hartu behar dugu inbertsio asko sektore publikoaren arloan egiten direla eta, beraz, horiek emakida administratibo edo estatu hartzailearekiko kontratuen bidez arautzen direla, beste hitz batzuetan, Zuzenbide Publikoko arauak aplikatuz alegia. Bestetik, haren barnean agertzen diren beste arau batzuk, hots, inbertitzaileen jabetzari buruzkoak edo haien obligazioen gainekoak, Zuzenbide Pribatuari dagozkio. Izaera juridiko misto horretaz gain, bere konplexutasuna areagotzen duen beste berezitasun bat dario Nazioarteko Inbertsio Zuzenbideari, nazioarteko egoerak babesten ditu, hau da, inbertitzaileak ez du bere naziotasuneko estatuan egingo inbertsioa, baizik eta beste estatu batean. Ondorioz, inbertitzaileek beren inbertsioak babesteko arauak galdatzen dituzte, estatu hartzailearen ustezko gehiegikeriak saihesteko<sup>6</sup>.

## 2.2. Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidearen iturria: inbertsio-hitzarmenak

### 2.2.1. Kontzeptua eta motak

Aipatu ditugun babes-arau horiek, ezagunak bezain polemikoak diren nazioarteko inbertsio-hitzarmenetan jasotzen dira. Azken horiek, normalean bi estaturen artean negoziatzen diren itunak dira, elkarrekin burututako inbertsioak babestea helburu dutenak. Zioz, estatu inbertsio-hartzaileek atzerriko inbertsio-fluxu zuzenak sustatzea bilatzen dute, ordainean marko juridiko egonkor eta seguru bat eskainiz. Beste hitz batzuetan: bi estaturen arteko hitzarmen bat da, estatu kide bateko inbertitzaileek beste estatu kide bateko herrialdearen lurraldean inbertitzen dutenean, gutxieneko tratamendu estandar bat jasoko dutela bermatzen duena<sup>7</sup>. Era berean, inbertsio-hitzarmen hauek bi motatakoak izan daitezke: alde anitzeko inbertsio-hitzarmenak (*Multilateral Agreement on Investment* ingelesez, guretzat hemendik aurrera MAI) eta aldebiko inbertsio-hitzarmenak ditugu (ingelesez, *Bilateral Investment Treaties*, hemendik aurrera BIT).

---

4. Inbertsio Zuzenbidearen garapenean gehiago sakontzeko, ikus: Prieto, 2012: 6.

5. Ikuskera honekin bat dator, García-Bolívar, 2015: 139.

6. Modu horretan deskribatzen du: Velázquez, 2016: 5.

7. Horrela definitzen du: Gabisa, *op.cit.*, 158. or.

Sailkapen horren harira datu bat bereziki azpimarratu behar da: ez da existitzen Inbertsio Zuzenbidea era homogeen arautzen duen alde anitzeko inbertsio-hitzarmenik. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko kide diren herrialdeek askotariko saiakerak burutu dituzte, baina denek porrot egin dute, nazioarteko erakunde askok, ingurugiroaren aldekoek, pobrezia aurkakoek, giza eskubideen aldekoek... oposizio garbia erakutsi baitiote ekimen honi. Gaitzespen horren arrazoi nagusien artean honakoa aipa genezake: MALak jabetza eta aktibo askori babes legala ahalbidetuko lieke eta, ondorioz, gobernuen gaitasuna ekonomia modu zabalago batean arautzeko, hau da, giza eskubideak sustatzeko politika publikoak indartzeko gaitasuna murriztuta edo ezeztatuta geratuko litzateke<sup>8</sup>. Hori horrela, alde anitzeko inbertsio-hitzarmen bat sortzeko adostasunik ezak, atzerriko inbertitzaile pribatuen eskubideak zehaztu eta babesteko, milaka aldebiko inbertsio-hitzarmen aurrera eramatea eragin du. Gaur egun, UNCTADen estatistiken arabera, 2.896 hitzarmen adostu dira eta horietatik 2.337 daude indarrean<sup>9</sup>. Datu horrek argi uzten du, egun, Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidea BIT direlako sare konplexu batean jasotzen dela. Horiez gain, merkataritza askeko zenbait itunetako inbertsio-atalak ere kontuan eduki behar ditugu, horiek ere Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidea osatzen baitute.

### 2.2.2. Edukia

Inbertsio-hitzarmenen edukiari dagokionez, nahiz eta Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidea homogeneizatuta ez egon, BIT gehienek elementu komun batzuk dituzte: (1) zein inbertsio mota babesteko den adierazten da (kasu gehienetan inbertsio atzeritar zuzena); (2) inbertitzaile atzeritarra zein den definitzen da, eta (3) inbertitzaileei zenbait babes-arau edo klausula ziurtatzen zaizkie<sup>10</sup>.

#### 2.2.2.1. Babes-arauak

Inbertsio-arbitrajea aztertu baino lehen, hitzarmen hauetan inbertitzaileei onesten zaizkien babes-arau edo estandar minimoak aztertzeak berebiziko garrantzia du, horien urrapenaren inguruan —sortutako gatazka ebazteko, alegia— egingo baita inbertsio-arbitrajea. Klausula anitz ager daitezkeenez, ohikoei erreparatuko diegu<sup>11</sup>.

Lehenik eta behin, berdintasunezko eta bidezko tratua bermeari dagokiona (*Fair and equitable treatment*) aipatu behar dugu, zeinak atzerriko inbertitzaile eta inbertsioek berdintasunezko eta bidezko tratua jaso behar dutela adierazten duen. Haren edukia hain zabala eta zaila izanda, haren finkapena, askotan, arbitroen interpretazioen menpe egongo da.

Bigarrenik, babes eta segurtasun osoaren araua (*Full and protection security*) kontuan hartu behar dugu. Horren arabera, estatu inbertsio-hartzailearen gobernuak babes poliziala bermatu behar die atzerriko inbertitzaileen jabetzei. Halaber, tratu nazionalaren babes-araua (*National treatment provisions*) aintzat hartu behar

---

8. MALaren gaitzespenaren inguruan gehiago sakontzeko, ikus: Peterson, 2009: 11.

9. UNCTAD (2019). Investment Policy Hub [datu-basea].

10. Beste askoren artean, Gutiérrez, 2019.

11. Sailkapen hau egiten du, beste batzuen artean: Peterson, *op.cit.*, 13. or.

dugu, zeinak bermatzen duen atzerriko inbertsio eta inbertitzaileek estatu inbertsio-hartzaileko inbertitzaile eta inbertsio nazionalak jasoko luketen tratu bera izatea.

Aurrekoarekin lotuta, nazio mesedegarrienaren klausula (*Most Favoured nation clause*) mahaigaineratu behar dugu, zeinak, atzerriko inbertsio eta inbertitzaileek, estatu inbertsio-hartzailean, beste estatu batzuetako inbertitzaileekin alderatuz, tratu onuragarriago bat jasotzeko eskubidea dutela bermatzen duen.

Azkenik, ohikoak diren beste bi babes-arau aitatuko ditugu: desjabetze zuzen eta ez-zuzenekiko mugapenei buruzkoa (*Protection from direct and indirect expropriation without compensation*) eta funtsen transferentzia askearen gainekoa (*Free transfer of investment and returns*). Lehenengoari dagokionez, hitzarmenek orokorrean, inbertsioen desjabetze zuzen eta ez-zuzenak babesten dituzte, inbertsioaren estatu hartzaileari, hori gertatuko balitz, kalte-ordain bat ordaintzeko obligazioa leporatuz. Bigarrenak, aldiz, inbertsioari lotutako funtsak (etekinak, interesak, eskubideak, kalte-ordainak...) aberriratzeko eskubide osoa bermatzen die atzerriko inbertitzaileei.

#### 2.2.2.2. Inbertitzailearen obligazioak

Ikusi dugun moduan, inbertsio-tratatuak inbertitzaile eta inbertsio atzerritarrek babesteko, gobernu inbertsio-hartzailearen jarduera mugatzen dute, ezarritako klausulei men egin behar baitiete. Kontrara, inbertitzaileek mugapen edo obligazio oso murrizak dituztela mantentzeko. Izan ere, inbertsio-hitzarmen gehienek ez diete, modu esplizituan behintzat, inolako obligaziorik edo erantzukizunik egozten inbertitzaileei<sup>12</sup>. Nahiz eta proposamen ugari egon, inbertitzaile atzerritar edo horien nazioz gairikoen enpresen nahiak gailentzen dira oraindik. Horren harira, gai honetan adituak aburuz, obligazio horiek lehen azaldu ditugun babes-arauetatik inplizituki erator daitezke. Esaterako, berdintasunezko eta bidezko arautik inbertitzailearen abusuzko jarrerak gaitzesten direla interpreta dezakegu, alegia, inbertitzaile batek ezin du adierazi berdintasunezko edo bidezko tratu bat jaso ez duela, bera neurritz kanpoko ekintzak (gubernuko funtzionarioak engainatzea bere jarduera komertzialari buruz, adibidez) egiten ari bada<sup>13</sup>. Hala ere, iritziak iritzi, jarraian azalduko dugun moduan, argi dago babes-arau hauek *pro*-inbertitzaile interpretazio bat egiteko bidea edo tresna direla.

#### 2.2.2.3. Gatazkak konpontzeko xedapenak: arbitraje-klausula

Jurisdikzionalistak garen heinean, BITen inguruan gehien interesatzen zaiguna, inbertitzaileen eta estatu inbertsio-hartzailearen artean sor daitezkeen gatazkak konpontzeko xedapenak dira. Zehazki, ikusi ditugun babes-arauak, inbertitzaileei bermaturiko tratu estandarra eraginkorra izan dadin eta estatu inbertsio-hartzaileek egin ditzaketan urrapenak salatuz, BITek akzio-eskubidea egikartzeko aukera ematen diete inbertitzaileei (eta ez inbertitzailea nazionala den estatuari)<sup>14</sup>. Hori

---

12. BIT batzuek enpresa inbertitzaileei estatu hartzailearen garapen eta politika publikoekin bat egiteko betebeharrak esleitzen diete, baina betebeharrak hori borondatezkoa da. Inbertsio-hitzarmenen erantzukizun sozialaren inguruan sakontzeko: Conference on Trade and Development (2001): *Social Responsibility, UNCTAD Series on issues in international investment agreements*, 17. or.

13. Adibide gehiago ematen ditu: Muchlinski, 2006: 567-598.

14. Horrela deskribatzen du: Perez, 2010: 112.

horrela, atzerriko inbertitzaileari, inbertsio-tratatuaren ez-betetze bat burutu duen estatu baten kontra, demanda bat jartzeko aukera aintzatesten diote. Beraz, egia da inbertsio-hitzarmenek inbertitzaileei erreklamazioak egiteko bidea errazten eta ahalbidetzen dietela. Bide hori egiteko moduari dagokionez, inbertsio-tratatueta arbitraje-klausula gehienek honako egitura dute (Dorín, 2012): kontsulta- eta negoziazio-fasea, itxaronaldi-fasea, jurisdikzioaren hautatzeko fasea eta arbitraje-erakunde edo/eta arbitraje-erregelamenduaren aukeraketaren fasea. Inbertsio-hitzarmen gehienek, era berean, arbitraje-erregelamendu desberdinak (CIADI, *ad hoc* arbitrajeak...) eskaintzen dituzte, inbertitzailearen esku utziz zein aukeratu.

Esandakoa baloratuz, inbertsio-arbitrajea mahaigaineratuta, tratatu hauen helburu edo xede nagusia bakarria dela baieztatu dezakegu: atzerriko inbertitzaileak eta haien aktiboak babestea, inbertitzaileei obligazio eta erantzukizun legalak egozteko baino areago. Aurkezpen honekin, hurrengo atalean inbertsio-arbitrajearen errailetan murgilduko gara.

### 2.3. Inbertsio-arbitrajearen nondik norakoa

#### 2.3.1. Kontzeptua

Nazioarteko inbertsio-arbitrajea mekanismo bat da estatu baten eta inbertitzaile atzerriar baten arteko inbertsio-gatazkak konpontzeko. Aurretik esandakoari zenbait ñabardura gehitu behar dizkiogu: alde batetik, gatazkak konpontzeko modu honek ez du balio merkataritzarekin lotutako edozein auzi konpontzeko (nazioarteko merkataritza-arbitrajea ez da gauza bera!<sup>15</sup>), inbertsio-gatazka legalak ebazteko erabiltzen baita bakarrik. Beraz, garbi gera bedi gaiaren ezarpen-eremua inbertsio-aferetara mugatzen dela. Bestetik, arbitrajearen parte-hartzaileak beti dira estatu bat, inbertsioaren hartzailea hain zuzen, eta atzerriko inbertitzaile bat!<sup>16</sup>. Aurretik adierazi dugun hau da gatazkak konpontzeko modu honen berezitasun nagusia eta funtsa, hemendik baitator inbertsio-arbitrajea *Investor-State dispute* izenez ezagutzea. Hortaz, atzerriar bat eta inbertitzaile bat protagonistatzat dituen gatazka konpontzeko bide ez-judizial batez ari gara, protagonista hauen jaioterria inbertsio-tratuetan dagoela ahaztu gabe, BITetan oinarritutako inbertsio-gatazkez jardungo baikara.

#### 2.3.2. Garapen historikoa

Gaur egungo inbertsio-arbitraje sistemara iritsi arteko ibilbidea luzea eta motela izan da eta, garapen hori bi ikuskera edo tesiren tentsioan oinarritu da: tratatu nazionalaren aldekoa eta nazioarteko tratatuaren aldekoa. Ideia honen islan, hasiera batean, 1959. urtera arte zehazki, atzerriko inbertitzaileen eta gobernu inbertsio-hartzailearen arteko interes-gatazkak Nazioarteko Zuzenbide Publikoa aplikatuz konpontzen ziren. Inbertitzaileak bi aukera zituen: estatu hartzailearen auzitegietara jotzea bertako zuzenbidea aplikatuz, edo babes diplomatikoa eskatzea bere estatuan, instantzia internazionalera jotz. Egoera hori, 1959ko Alemania eta Pakistanen arteko lehenengo inbertsio-hitzarmenarekin aldatu zen. Nahiz eta lehenengo itun horrek ez

15. Horrela esan zuen, argudio garbiekin, Sanz-Pastor, 2007: 13-22.

16. Kasik hitzez hitz: García-Bolívar, 2015: 144.

zituen egungo inbertsio-tratatueta jasotzen diren berme berdinak, aurrerago sortu den inbertitzaileen babes-sistemaren aurrekaritzat jotzen da<sup>17</sup>.

Paraleloki, inbertsioen segurtasunari baldintza hobeak eskaintzeko eta hazkuntza ekonomikoa azkartzeko, Munduko Bankuak gatazkak konpontzeko borondatezko metodoak martxan jartzea pentsatu zuen, adiskidetze eta arbitrajearen bidez. Horrela, 1966. urtean Munduko Bankuak, Washingtongo Hitzarmenaren bidez, Inbertsioei buruzko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa sortu zuen (hemendik aurrera: CIADI). Modu horretan, erakunde horren estatu sinatzaile eta beste estatu sinatzaile bateko inbertitzaileen arteko gatazkak konpontzeko mekanismoa sortu zen. Alabaina, jarraian ikusiko dugun moduan, 90eko hamarkadara arte ez zen hasi erabiltzen inbertitzaileen artean.

Beraz, esan dezakegu, BITen eta CIADIREN sorrerak eta bertan adierazten diren printzipioek estatu-inbertitzaile arbitrajearen oinarriak eta egun darraien sistemaren euskarriak ezarri zituztela, gatazkaren konponbidea auzitegi lokaletatik at utziz, gatazka nazioartekotuz eta inpartzialagoa bihurtuz, era berean, inbertitzaileei babes-maila handiago bat eskainiz.

### 2.3.3. Arbitraje motak

Inbertitzaileari nazioarteko inbertsio-arbitrajea aurrera eramateko erakunde desberdinak aukeratzea ahalbidetzen zaio. Horrekin bat, bi inbertsio-arbitraje mota bereiz ditzakegu: erakundetua eta ez-erakundetua.

Erakundetua, espresuki, atzerriko inbertitzaileen eta estatuen arteko gatazkak konpontzeko sortu den erakunde bakarrean, CIADIn alegia, garatzen da. Nahiz eta instituzio hori 1966an sortu, 90eko hamarkadan izan zuen goren aldia, inbertsio-tratatuaren loraldiarekin batera. Arbitraje-prozesua erakunde horren menpe jarri ahal izateko, inbertsioaren estatu hartzaileak eta inbertitzailearen estatuak hango kide izan behar dute. Nabardura bat egin beharrean gara: nahiz eta aldeetako bat (ez biak, alegia) erakundeko kide ez izan, bi aldeek beren adostasuna adierazi badute gatazka erakunde horrek konpon dezan, mekanismo hori erabiliko da. Edozein kasutan, gatazka bide horren bitartez konpontzeko bi aldeek onespina behar da. Adostasun hori inbertsio-hitzarmenetan jasotzen da, bertan atzerriko inbertitzaileak zein inbertsioaren estatu hartzaileak onetsi behar dute gatazkaren bat sortuz gero nazioarteko arbitrajea erabiliko dutela hura konpontzeko. Nabarmenezkoa da erakunde horretan aurrera eraman diren arbitraje-prozesuen zerrenda bat argitaratzen dela; beraz, zein arbitraje-prozesu aurrera eraman diren jakin dezakegu. Hala ere, audientziak ez dira publikoak izaten, prozesuaren aldeek kontrakoa adierazten ez badute behintzat.

CIADI ez den beste erakunde batzuetan garatzen diren arbitrajeak, aldiz, ez-erakundetutzat jotzen dira. Inbertsio-arbitraje hauek aldeek adostasuna beharko dute bakarrik eta honako hauetan eramaten dira aurrera: Nazioarteko Merkataritza Zuzenbiderako Nazio Batuen Batzordean eta Nazioarteko Merkataritza Ganberako

17. Alemania eta Pakistaneko itun hori adiskidetasun-, merkataritza- eta nabigazio-tratatuaren bilakaera bat izan zen, inbertitzailea eta atzerriko inbertsioa babesteko sistemaren aurrekaria izan zen; horrela adierazten du: García-Bolívar, 2015: 140.

Nazioarteko Arbitraje Gortean. Horiez gain, nazioarteko zenbait arbitraje-gorteren aurrean ere burutu daiteke prozesua, Londresko Arbitraje Gortean kasu, baina hori ez da ohikoena, inbertsio-arbitraje gehienak CIADIk eramaten baititu. Azkenik, adierazi behar da ez dela existitzen nazioarteko inbertsio-arbitraje kasuak ebazteko organo eskudun bakar eta iraunkor bat, auziak kasuz kasu ebazten baitira inbertitzaileak aukeraturiko erakundearen arabera.

#### 2.3.4. Prozesu arbitrala

Behin inbertsio-arbitrajearen kontzeptua azalduta, haren prozesuan murgilduko gara. Zehazki, CIADIk erabiltzen duen prozesua aztertuko dugu. Horretarako, erakunde espezializatu horren hitzarmenaren Arbitraje Arau eta Hastapen Arau ataletako xedapenetan oinarrituko gara: Prozesua, arbitraje-eskaerarekin hasten da (CIADiko hitzarmenaren 36. artikulua eta Hastapen Arauaren 1.-9. artikulua) erakundeko kide den estatuaren edo estatu sinatzaile bateko nazional baten eskaerarekin, alegia. Behin eskaera Idazkaritza Orokorrean erregistratuta, aldeei jakinarazten zaie. Ondoren, kasuaz arduratuko den organo arbitralaren osaera zehazten da (CIADiko hitzarmenaren 37., 38., 57. artikulua eta Arbitraje Arauaren 1.-9. artikulua), eta arbitro bakar batez edo arbitro kopuru bakoiti batez eratu da, aldeek adosten dutenarekin bat. Desadostasuna izanez gero, organo arbitrala hiru arbitroz osatuko da: alde bakoitzak arbitro bat aukeratu du eta bestea Erakundearen Administrazio Kontseiluko buruak hautatu du. Idazkaritza Orokorra hautatutako arbitroak/ek bere/beren izendapena onartu du(t)ela jakinarazten dienean aldeei, kasuaz erabakiko duen *third neutral*-a osatuta geratu dela ulertuko da.

Organo arbitrala osatu eta, gehienez, 60 egunera, lehenengo bilkura egingo da (Arbitraje Arauaren 13., 20., 22. artikulua). Batzar horretan, arbitrajearen garapenerako garrantzitsuak diren kontuak zehaztuko dira, hala nola organo arbitrala pertsona anitzekoa bada, quoruma osatzeko behar diren kideen kopurua; hizkuntza; idazkien kopurua eta ordena eta haiek aurkezteko epeak; audientzien akta egiteko era... Lehenengo saio hori burututa, Idazkari Orokorra edo organo arbitraleko presidenteak eskatuta aurretiazko audientzia egingo da (Arbitraje Arauaren 21. art.). Horren helburua da eztabaidagarriak ez diren egitateak finkatzea, prozesua azkarrago joan dadin. Ondoren, idatzizko fasea etorriko da (Arbitraje Arauaren 31. art.). Bertan, hurrengo txostenak edo memoriak aurkeztuko dira: eskatzailearen memoria, beste aldearen erantzunaren memoria, eskatzailearen erantzuna eta beste aldearen erantzuna. Fase honi, ahozko faseak jarraituko dio (Arbitraje Arauaren 32. art.). Bertan, aldeak, ahaldunak, abokatuak, lekukoak eta perituak entzuteko audientziak egingo dira. Halaber, organo arbitralak frogak gaitzetsi edo onetsiko ditu eta haien frogabalia zehaztuko du (Arbitraje Arauaren 33.-37. artikulua). Aldeek egin beharreko eta aurkeztu beharreko guztia egitean, prozedura itxi egingo da (CIADiko hitzarmenaren 37. art.). Hala ere, laudoa emateko ezinbesteko frogak bat beharrezkoa baldin bada, salbuespenez, prozesua berriz ireki daiteke. Prozesuaren itxieratik 120 egunera laudoa eman eta sinatu beharko da (CIADiko hitzarmenaren 46.-49. artikulua). Haatik, beharrezkoa baldin bada, epea 60 egunetan luzatzeko aukera izango du organo arbitralak. Laudoak, berriz, hurrengo edukia izango du: aldeen identifikazioa; organo arbitralaren adierazpena, hitzarmenaren arabera



eratu dela esateko; organoko kideen, ahaldunen, aholkularien eta abokatuen izen-abizenak; prozesuaren laburpena; egitateen laburpena; aldeen eskaerak; egitate eztabaidagarri bakoitzaren inguruko arrazoiketa juridikoa eta prozesuko kostuen kopurua. Ondoren, laudoa aldeei jakinarazi beharko zaie eta haien onespenearekin argitaratuko da. Laudoaren argitze, berrikuste eta ezeztapena eskatu nahi bada, eskaerak idatziz aurkeztu beharko dira Idazkari Orokorraren aurrean (CIADiko hitzarmenaren 51., 52. artikulua eta Arbitraje Arauaren 51., 52. artikulua). Azkenik, laudoaren aintzatespen eta exekuzioari dagokionez (CIADiko hitzarmenaren 53.-55. artikulua), adierazi behar dugu beronek indar loteslea duela alderdientzat eta ez dela aurkagarria izango. Aldeek hura onartu eta bete beharko dute osorik, haren exekuzioa eteten ez den bitartean.

### 2.3.5. Bereizgarriak

BITetan oinarritzen den inbertsio-arbitrajeak, beste nazioarteko arbitrajeekin alderatuta, berezitasun konkretu batzuk ditu<sup>18</sup>. Bereizgarri horiek aztertzeak berebiziko garrantzia du, horietariko askotan oinarritzen baitira giza eskubideen bermearen inguruko zalantzak. CIADiren hitzarmenetik eratortzen diren inbertsio-arbitrajeak dituzten bereizgarriak errepikatuta, lehenik eta behin, estatu inbertsio-hartzailearen jardura mugatzen dela adierazi behar dugu; izan ere, inbertsio-tratatuetan inbertitzaileari bermatzen zaizkion babes-arauek estatu hartzailearen jardura baldintzatzen dute. Ondorioz, estatu horren edozein egite edo ez-egitek (nahiz eta Estatuaren funtzioetako bat izan) inbertsio-tratatuko babes horiek urratzen baditu, demandatua izan daiteke. Bigarrenik, estatu hartzailearen kontrako inbertitzailearen legitimazio aktibo eskusiboa nabarmendu behar dugu. Hirugarrenik, eztabaidak foro lokaletik baztertzearen bereizgarria oso garrantzitsua da; izan ere, estatu-inbertitzaile arbitrajeak Estatuaren Botere Judizialak konpondu beharko lituzkeen eztabaidak ebazten ditu.

Bestetik, nazioarteko inbertsio-arbitrajeak izaera berezia du Nazioarteko Zuzenbidearen barruan; izan ere, ez da estatuaren arteko harreman batean oinarritzen, estatuaren eta atzerriko inbertitzaile baten artekoan baizik. Azkenik, kontuan hartu behar dugu, Nazioarteko Zuzenbidearen bidez, estatu-inbertitzaile gatazkak konpontzeko aukera ahalbidetzen zaiela inbertitzaileei. Alabaina, aintzat hartu behar dugu nazioarteko arbitrajea, zentzu hertsian, ez dela hautapenezkoa; Nazioarteko Zuzenbidean, lehen esan bezala, ez baita existitzen estatu-inbertitzaile gatazkak konpontzeko auzitegirik; beraz, inbertsio-arbitrajeari dagokion prozesua erabili beharko dugu ezinbestean.

### 2.3.6 Abantailak

Inbertsio-arbitrajeak, arbitrajeak orokorrean dituen abantailez gozatzen du<sup>19</sup>: prozesu neutral eta espezializatua, malgutasun eta azkartasun prozesala, konfidentzialtasuna, laudoaren exekuzio automatikoa... Azken horren harira, 1958ko New

18. Bereizgarri hauek nabarmentzen ditu: Hernández, 2016: 161-162.

19. Orokorrean, arbitrajearen eta gainerako *Alternative Dispute Resolution* tekniken abantailez zuzenbidearen edozein arlotan gerta daitezkeen gatazkak ebazteko orduan, jurisdikzioarekin duten harremanari errepikatuz, haien ahulezietan ere indar eginez: Ordeñana, 2009: 22-64.

Yorkeko Hitzarmena aipatu behar dugu, Laudo Arbitral Atzerritarren Aintzatespen eta Exekuzioari buruzkoa. Itun horretako kide 145 herrialde baino gehiago dira, eta horietako bakoitzak, oro har, beste estatu sinatzaile batzuetan emandako arbitraje-laudoak betearazteko konpromisoa hartzen du, exekuzioaren oposizioa ahalbidetzen den salbuespen batzuetan izan ezik<sup>20</sup>. Aipatzekoa da, CIADlko hitzarmenean, salbuespen horiek ez direla jasotzen, hau da, ez da onartzen laudo bat ez exekutatzeko arrazoirik. Beraz, laudoaren exekuzioa automatikoa eta salbuespenik gabekoa da. Laudoaren exekuzioa nahi duen aldeak nahikoa du horren kopia ziurtatu bat erakunde eskumendunaren aurrean aurkeztearekin. Zalantza gabe, aukera hau oso erakargarria da inbertitzaileentzat, laudoa haientzat mesedegarria izanez gero, haren exekuzioa automatikoa baita<sup>21</sup>.

Abantaila prozesal horiez gain, inbertitzaileari loturiko beste pizgarri batzuk ere baditu aztertzen ari garen arbitrajeak: arrisku politikoaren txikiagotzea eta barneko inbertsio-erregimen egonkor baten sustapena batik bat.

Lehenengoari dagokionez, herrialde baten arrisku politikoa herrialde horrek jasan ditzakeen aldaketa politikoekin dago lotuta, politika publiko edo sozialek herrialdearen egonkortasun ekonomikoa bermatzeko aurrera eraman daitezkeen aldakuntzak barnebiltzen dituztelarik. Inbertitzaile orok inbertsio bat egiten duenean momentu horretako estatuaren egoera kontuan hartzen du, gerta daitezkeen aldaketa juridiko-politiko edo ekonomikoa zeintzuk izango diren jakin gabe. Inbertsio-arbitrajeak inbertitzailearen hasierako ikuskera hori babesten du eta gerta daitezkeen aldaketen aurrean zenbait babes-arau ahalbidetzen dizkio inbertitzaileari, berdintasunezko eta bidezko tratuaeren babes-araua kasu. Barneko inbertsio-erregimen egonkor baten sustapenaren harira, inbertsio-arbitrajea, BITetan oinarritzen dela edo bertatik eratortzen dela ikusi dugu. Modu horretan, horietan ezarritako klausulen bidez eta inbertsio-arbitraje prozesuan horiek aplikatzearen eraginez, inbertsioen segurtasuna bultzatzen da, inbertitzailearentzat mesedegarriagoa den eraentza bat sortuz.

### *2.3.7. Desabantailak*

Gatazkak konpontzeko bide honen desabantaila nagusia, zalantza barik, haren kostu handiak dira. Zifra handiei so eginez gero, estatu-inbertitzaile arbitraje-prozesuaren kostu legal eta arbitralak, batez beste, 8 milioi dolar izaten dira, nahiz eta kasu batzuek 30 milioi dolar gainditzen dituzten. Kostu konkretuei erreparatuta, aldiz, ondoren ikusiko dugun moduan, inbertsio-abokatuen bulegoak 1.000 dolar orduko kobratzera ausartzen dira. Ildo berean, arbitroen soldatak oso kopurutsuak izaten dira (Olivet eta Eberhardt, 2013: 7). Gogoetan sakonduz, azpimarratu behar dugu, kostu hauek guztiak herritarren zergekin finantzatzen direla, baita oinarritzko zerbitzuak jasotzeko aukerarik ez duten pertsonak dauden herrialdeetan ere. Aberatsen arazoak konpontzeko pobreen dirua erabiltzea zilegi ote?

---

20. Horrela adierazten da: Latham eta Watking, 2013: 4.

21. Laudoaren exekuzio automatikoan sakontzeko, ikus: Gallardo, 2014: 179.

### 3. Giza Eskubideen Zuzenbidea

Aurretik esan bezalaxe, egungo mundu globalizatuan, nazioarteko inbertsio-fluxuen mugimendua ohikoa bilakatu da. Ekonomia erritmo harrapaezinean hazten doala argi daukagu, baina, askotan, ibilbide horren pausoen gidari Giza Eskubideen Zuzenbideak izan behar duela ahaztu egiten da.

Giza Eskubideen Zuzenbideak itun eta aldarrikapen desberdinetan du sorburu. Gizateriaren gertaera lazgarrietarikoaren ostean, hots, Bigarren Mundu Gerraren ostean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala<sup>22</sup> onartu zuen Parisen, nazioarteko segurtasuna eta bakea bermatzeko. Aldarrikapen horri, ondoren adostu ziren bi hitzarmen gehitu behar dizkiogu: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna<sup>23</sup> (hemendik aurrera, EZPNI) eta Eskubide Ekonomiko eta Sozialen Nazioarteko Ituna<sup>24</sup> (aurrerantzean, EESNI). Hiru hitzarmen horiek, Giza Eskubideen Gutuntzat ezagutzen dena osatzen dute eta Giza Eskubideen Zuzenbidearen oinarria dira. Halaber, enpresa-munduan giza eskubideen bermea eta sustapena bultzatzeko, Nazio Batuen Erakundeak 2011. urtean emaniko Enpresa eta Giza Eskubideei buruzko Nazio Batuen Printzipio Gidariak kontuan hartu beharrekoak dira. Printzipio horiek estatuek giza eskubideak babesteko duten betebeharra berresten dute eta enpresei horiek errespetatzeko betebeharra esleitzen. Nahiz eta irizpide hauek estatuentzat lotesleak ez izan, ekonomia globalizatuaren gehiegikeriei aurre egiteko ezinbestekoa da horiek kontuan hartzea.

### 4. Giza Eskubideen Zuzenbidearen eta Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidearen arteko harremana

Orain arte, Giza Eskubideen Zuzenbidea eta Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidea bakoitza bere aldetik aztertu ditugu, bi mundu banandu eta ezberdintzat joz, itsaso desberdinetako naufragoak izango balira bezala. Aitzitik, uste dugun baino antzekotasun handiagoak dituzte.

Alde batetik, bien oinarria Zuzenbide Publikoan dago. Ikusi dugun moduan, bi diziplinen oinarri legalak hitzarmenetan jasota daude. Bereziki azpimarratu behar dugu Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren subjektuak estatuak direla eta ez gizabanakoa. Hala ere, giza eskubideen hitzarmen eta inbertsio-tratatuak onuradunak hezur-haragizko gizabanakoak, pertsonak, dira. Hori horrela, bi zuzenbideek gizabanakoa eta inbertitzailea babesteko printzipio eta babes-arauak xedatzen dituzte. Bai Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak, bai Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak ere, pertsona fisiko zein juridikoen jabetza-eskubidea aitortzen dute eta desjabetzea helburu publikoekin eta nazioarteko zuzenbidearen arabera egin behar dela adierazten dute. Modu berean, inbertsio-tratatuak desjabetze zuzen eta ez-zuzenekiko babesa eskaintzen diete inbertitzaileei. Beraz, jabetza-eskubidearen eta desjabetua ez

22. NBEren Biltzar Orokorra onetsia, 1948ko abenduaren 10eko 217 A(III) ebazpenean. Aldarrikapenaren sorrera eta idazte-prozesuan izandako gorabeherak aztertzeko eta nazioartean giza eskubideen arloan bizi izan den prozesuan sakontzeko, ikus: Oraá Oraá eta Gómez Isla, 2008.

23. NBEren Biltzar Orokorra onetsia, 1966ko abenduaren 16ko 2200 A (XXI) ebazpenean. Indarrean jarri zen 1976ko martxoaren 23an, 49. artikularekin bat etorritz.

24. NBEren Biltzar Orokorra onetsia, 1986ko abenduaren 16ko 2200 A (XXI) ebazpenean. Indarrean jarri zen 1976ko urtarrilaren 3an, 27. artikularekin bat etorritz.

izateko eskubidearen arteko erlazioa bi diziplinetan jasotzen da. Orobat, aipatutako inbertsio-tratatueta bidezko eta berdintasunezko klausula EZPNren funtsa diren berdintasun edo diskriminaziorik ezaren printzipioan oinarritzen da. Halaber, giza eskubideen erregimenak pertsona bati bidezko epai bat eta egokia den prozesu bat izatea aintzatesten dio. Era berean, Inbertsio Zuzenbidearen erregimenak inbertitzaileari prozesu egoki eta bidezko bat izatea ahalbidetzen dio<sup>25</sup>.

Bestetik, bi sistemek mekanismo internazionalak ahalbidetzen dituzte, estatu bat bere ez-egiteengatik (giza eskubideak urratzeagatik edo inbertsio-tratatueta obligazioak ez betetzeagatik) erantzule bihurtzeko. Giza eskubideen hitzarmenen kasuan, pertsona batek estatu bat demandatu dezake, normalean barne-instantziak agortu ondoren. Demanda hori Europako Giza Eskubideen Auzitegian tarteratu daiteke, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean oinarrituta. Inbertitzaileen kasuan, aurretik jorratutako moduan, inbertsio-hitzarmenetan jasotako klausula arbitralaren bidez, estatu hartzaileak zuzenki demandatu daitezke nazioartean, auzitegi lokaletatik igaro gabe. Horrenbestez, argi geratzen da bi sistemak interes konkrituak babesteko sortu direla, nazioarteko hitzarmenetan jasotzen direla eta haien artean ezaugarri komun asko dituztela. Antzekotasun horiei erreparatuz, beraz, hasiera batean hain bananduak ziruditen bi mundu horiek hurbildu egiten dira. Are gehiago, hurbiltze horrek erakusten du giza eskubideak eta inbertsio-arbitrajea benetan interkonektatuta daudela, eta bi diziplina independente direlako ideia alde batera utzi behar dela. Haratago baina, kontua da, nola dauden erlazonatuta edo egungo sisteman *lege data* nola egituratzen den horien arteko harremana. Auzi honetan argia egiteko inbertsio-arbitrajea Giza Eskubideen Zuzenbidea aplikatzen den eta zein eratan egiten den jorratuko dugu.

#### **4.1. Giza Eskubideen Zuzenbidearen aplikazioa inbertsio-arbitrajean**

Esan bezalaxe, inbertsio-tratatuak giza eskubideen inguruan isiltasuna dute nagusi, haien helburu bakarra inbertitzaileak babestea baita. Hala ere, horrek ez du esan nahi inbertsio-tratatueta eratoritzen diren estatu-inbertitzaile arbitrajeetan Giza Eskubideen Zuzenbideko xedapenak aipatzen ez direnik. Beste kontu bat da —eta ez da ahuntzaren gauerdiko eztula—, aldiz, giza eskubideen aipamena edo aplikazioa zeinen onurarako erabiltzen den.

##### *4.1.1. Inbertitzaileen eskubideen babesa bermatzeko*

Inbertsio-arbitraje prozesuan, kasu gehienetan, giza eskubideei aipamena egiten bazaie, inbertitzailearen eskubideei erreferentzia egiteko edo inbertsio-tratatueta obligazioak argitzeko izaten da. Ez dugu ahaztu behar, sozietateak edo negozioak gauzatzen dituzten pertsonak Giza Eskubideen Zuzenbidetik eratoritzen diren babesak dituztela. Ondorioz, arbitroek Giza Eskubideen Zuzenbideari buruzko jurisprudenzia erabiltzen dute inbertitzaileei dagozkien babes-arauak interpretatzeko. Horren erakusgarri, esaterako, desjabetzearen edo inbertsio-nazionalizazioaren aurkako babesak xedatzen dituzten klausulak interpretatzeko, arbitroek Europako Giza Eskubideen Auzitegiko jurisprudenzia —jabetzen gozatze askea—

---

25. Horrela adierazten du: Karamanian, *op.cit.*, 35.-37. or.

erabili izan dute<sup>26</sup>. Kontuan hartu behar dugu giza eskubideen itunetan jabetza-  
eskubidea bermatzen dela eta arbitroek analogia hori kasu anitzetan erabiltzen  
dutela, inbertitzailearen jabetza-eskubidea, hots, inbertsioaren jabetza, babeseko<sup>27</sup>.  
Inbertitzailea atxilotua izan den kasuetan eta poliziarengandik babes egokia jaso ez  
duenean, edo tratamendu ez-gizatiarra jasan duenean, arbitroek giza eskubideen  
itunetako xedapenak erabili izan ohi dituzte, inbertitzaileen segurtasun eta  
babesaren urrapena argudiatzeko. Horrenbestez, inbertsio-arbitrajeko prozesuan  
Giza Eskubideen Zuzenbidea aplikatzen dela baieztatu dezakegu, baina inbertitzaileen  
babes-arauak interpretatzeko dela ahaztu gabe, hots, inbertitzaileei bermatu  
behar zaizkien gerizen onurarako. Horren harira, ez dugu isildu behar arbitroek  
ez dutela eskumenik estatu bat bere giza eskubideen obligazioak urratzeagatik  
erantzule bihurtzeko. Beste hitz batzuetan: ez daude giza eskubideen obligazioekin  
lotutako urratzeak aurkitzera behartuta. Edo kontrako zentzuan: arbitroak inbertsio-  
tratatueta inbertitzaileari egozten zaizkion babes-arauak urratu diren aztertzeraz  
mugaturik daude (Peterson, 2009: 23-25).

#### 4.1.2. Hirugarrenen giza eskubideak babeseko

Adierazi berri dugun moduan, Giza Eskubideen Zuzenbidea inbertitzailearen  
babes-eskubideak bermatzeko erabiltzen da. Baina, zer gertatzen da estatu-  
inbertitzaile arbitrajeak hirugarrenen giza eskubideetan eragina badu? Horiek  
babesten al dira?

##### 4.1.2.1. Estatuaren giza eskubideak babeseko obligazioa

Lehen adierazi ditugun giza eskubideen nazioarteko hitzarmenetan xedaturikoa  
kontuan hartuz, estatuak beren herritarren ongizatea eta eskubideak bermatzeko  
obligazioa dute. Betebehar hori betetzeko baina, askotan enpresa atzerritarren  
ekintzak arautu beharko dituzte. Hau guztia estatuak duten botere erregulatzailatik  
erortzen da, estatuak gizartearen segurtasuna, osasuna, ongizatea eta morala  
zaintzeko eta babeseko neurriak hartzeko duten gaitasunetik alegia. Botere horrek  
interes publikoak babestea ahalbidetzen du eta interes horren babespean aurrera  
eramaten diren gabetzeak ez konpentsatzea justifikaturik egongo litzateke, ordena  
publikoa, gizakien osasuna eta ingurugiroa zaintzeko egiten baitira. Kontua da —eta  
larria, gainera— kasu askotan estatu hauek inbertsio-tratatuak sinatzean, herritarren  
giza eskubideekin bateraezinak diren nazioarteko konpromisoak hartzen dituztela.  
Hori horrela, inbertitzaileek BITeko babes-arauak edo klausulak urratzen dituztela  
alegatzen dute arbitraje-prozesuan, eta demandatuak diren estatu hartzaileek Giza  
Eskubideen Zuzenbidera jotzen dute beren jardura justifikatzeko. Aldarrikatzen  
diren giza eskubide gehienak lehen aipatu dugun EESNIn daude jasota. Beraz,  
inbertsio-tratatueta obligazioen urrapenen defentsan, estatuak giza eskubideen  
argumentuak erabiltzen dituzte. Hortaz, estatuaren botere erregulatzailaren eta  
inbertsio-tratatueta harturiko obligazioen artean oso gatazka konplexua sortzen da,  
kompentsagarriak izan behar ez zuten kasuak, kompentsagarri bihurtuz<sup>28</sup>.

26. *Azurix vs Argentina*. CIADI ARB/01/12 2006ko uztailaren 14a, 311-2 paragrafoa.

27. *CMS Gas Transmission Company vs Argentina* CIADI ARB/01/8 2005eko maiatzaren 12a, 144-121 paragrafoa.

28. Gurekin bat: Gabisa, 2014: 162-163.

#### 4.1.2.2. Gatazken izaera eta arbitroen interpretazioak

Inbertsio-tratatuetakoa arbitraje-klausuletatik eratorritako estatu-inbertitzaile gatazka asko sozialki kaltegarriak diren ekintzetan oinarritzen dira. Makina bat kasu, ingurugiroa kaltetzen duten inbertsioak dira, erauzketa-industriak eta mineralak lortzeko buruturiko ekintzak, esaterako. Beste kasu asko, 90eko hamarkadakoak batik bat, sektore publikoen pribatizazioan oinarritu ziren. Oinarritzko zerbitzuen kalitatea eta hedapena hobetzeko, enpresa nazional asko pribatizatuak izan ziren, nazioz gaindiko enpresen esku geratuz haien kontrola. Enpresa horiek inbertitzaile atzerritarrek zirenez, inbertsio-tratatuak botere handia eskaini zieten zerbitzu horiek prezioa eta beste zenbait baldintza finkatzeko. Erabaki horiek gizartearengan eragin negatiboak sortu zituzten. Gatazka famatuena uraren giza eskubidearekin lotuta daude, zeintzuetan estatu hartzaileek beren lurraldean bizi direnen giza eskubideak bermatzeko, hots, edateko ura eskuragarri izatearen eskubidea bermatzeko, inbertsio-tratatuetakoa obligazioen bat urratu zuten. Halaber, beste zenbait kasu talde baztertu, marjinate edo minorizatu (herri indigenak, adibidez) giza eskubideen urraketan oinarritzen dira. Orokorrean, kasu gehienek konpainia handi eta boteretsu bat dute protagonistatzat, zeinak estatu bat demandatzen duen horrek hartutako neurri publikoen (osasuna, ingurugiroa, zergak...) kontra. Kasu hauen eragina giza eskubideengan ezin daiteke uka.

Testuinguru honetan, organo arbitralek hiru jarrera desberdin har ditzakete estatu hartzailearen giza eskubideen alegazioen aurrean: batetik, interpretazio baztertzalea egin dezakete. Haren aplikaziopean, arbitroek ez dute kontuan hartzen edo ez dute baloratzen estatu hartzaileak egindako giza eskubideen arrazoiketa, giza eskubideekin lotutako aferak beren eskumenetik kanpo daudela ulertzen baitute. Interpretazio hori ohikoa bihurtu da estatu-inbertitzaile arbitrajeetan. Horren adierazle dira *Vivendi vs Argentina*<sup>29</sup> kasua, zeinean herritarren uraren giza eskubidea ez zen aintzat hartu laudoan edota *Bernhard von Pezold vs Zimbabwe*<sup>30</sup> kasua, zeinean herri indigenen eskubideak auziaren ezarpen-eremutik at zeudela baieztatu

---

29. Espainia (Aguas Barcelona) eta Frantziako inbertitzaileek (Suez eta Vivendi Universal SA) Aguas Argentina SA enpresa sortu zuten. Inbertitzaile talde horrek Argentinako errepublikarekin 30 urteko kontratua sinatu zuen, edateko uraren kudeaketa eta saneamendua burutzeko. Argentina garai hartan, krisi finantzario sakonean murgilduta zegoen eta, horren eraginez, gobernuak uraren tarifak izoztu zituen eta ondoren kontratuari amaiera eman zion, akats teknikoak alegatuta. Neurri horiek atzerriko inbertitzaileak sutu zituzten eta Argentinako Gobernuak demandatu zuten CIADiren aurrean, Argentinak inbertsio-tratatuaren obligazioak urratu zituela alegatuta. Arbitraje-azitegiak, Argentinako errepublikak atzerriko inbertitzaileei sorrarazitako kalte eta galera ekonomikoengatik, kalte-ordainak ordaindu behar zizkietela adierazi zuen, inbertitzaileen interesen aldeko interpretazio bat eginez. Horren aurka, Argentinako Gobernuak laudoaren deuseztatzea eskatu zuen, hartutako neurri guztiak herritarren uraren eskubidea bermatzeko egin zirela alegatuz eta laudoan hori ez zela kontuan hartu argudiatuz. Deuseztapen-erabakia ikusteko, jo: *Decisión sobre la solicitud de anulación de argentina*, CIADiko ARB/03/19 kasua.

30. Kasu honetan, arbitraje-azitegiak zenbait komunitate indigenaren *amicus curiae*-ren eskaerak gaitzetsi zituen. Auzitegia ez zectorren bat eskatzaileen baieztapenekin, alegia, Nazioarteko Inbertsio Zuzenbidea eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea elkarren mendeakoa direla esatearekin, eta, beraz, giza eskubideen nazioarteko arauen edukia aintzat hartzen ez duen edozein erabaki legez osatugabea dela adieraztearekin. Auzitegiaren hitzetan: «Putative rights of the indigenous communities did not fall within the scope of the dispute». Gehiago sakontzeko, CIADI ARB/10/15 uztailaren 28ko kasura jo.

zuen auzitegiak. Beraz, ikus dezakegun moduan, organo arbitralen ohiko jarrera giza eskubideen gaien inguruan ez entzunarena egitea da. Bigarrenik, arbitroek interpretazio harmoniatsu bat egin dezakete. Horretarako, organo arbitralek Vienako Hitzarmenaren 31. artikulua kontuan har dezakete. Xedapen horrek aukera ematen du inbertsio-tratatuetako klausulak Nazioarteko Zuzenbideko beste hitzarmenak kontuan hartuz interpretatzeko, hau da, inbertsio-tratatuetako babes-arauak giza eskubideen hitzarmenetan xedatutakoarekin interpretazio orekatu bat egiteko beta ematen du. Aukera horren inguruan, kontuan hartu behar dugu aipatutako 31. artikulua muga nagusia: soilik garrantzitsuak eta aldeei aplikagarriak zaizkien arauak aplikatzea ahalbidetzen du bakarrik. «Garrantzitsu» hori zer den zehazteak gatazka ugari sorrarazi ditu adituen artean<sup>31</sup>. Hala ere, doktrinan aho batez mantentzen da<sup>32</sup> «garrantzitsu» irizpideak ez dituela beste gaiez diharduten nazioarteko arauak bazterten.

Ildo horren arabera, inbertsio-tratatuak giza eskubideak kontuan hartuz interpretatu behar dira. Hori gertatu zen arestian aipatutako *Argentina vs Vivendi* kasuan. Estatu hartzaileak BITeko obligazioen urraketaren defentsan, herritarren uraren giza eskubidearen bermea alegatu zuen. Organo arbitralak BITeko obligazioak eta giza eskubideei dagozkienak bateragarriak zirela adierazi zuen, eta uraren giza eskubidearen bermearen justifikaziopean ez zuela nahi zuena egiteko botere absoluturik. Are gehiago, Argentinaren botere erregulatuzailea BITeko obligazioen arabera egikaritu behar zela adierazi zuen. Beraz, kasu honetan, estatu hartzaileak aldarrikatutako uraren giza eskubidea BITeko obligazioen arabera interpretatu zen, nahiz eta demandatuak kontrako interpretazioa lortu nahi izan, hots, inbertsio-tratatu giza eskubideen arabera interpretatzea, bere ez-betetzea justifikatzeko. Hortaz, interpretazio hori egiteko bi era daude: giza eskubideen obligazioak inbertitzaileen babes-arauen mugapentzat jotzea, edo, inbertsio-tratatuaren obligazioen arabera giza eskubideen hedadura mugatzea. Organo arbitralek azken ikuskera horri jarraitzen diote, eta, ondorioz, interpretazio harmoniatsu bat erabiltzeko saiakerak inbertsio-tratatuak lehenestera daramatza, hots, inbertitzailearen babes-arauak gailentzen dituen lehentasunezko interpretazio bat egitera. Beraz, balorazioa eginez, interpretazio harmoniatsuen praktikotasuna, errealitatean, mugatua dela baieztatu daiteke<sup>33</sup>. Azkenik, arbitroek lehentasunezko interpretazio bat egin dezakete. Hau da, giza eskubideen babes-ailegatzen duten estatu hartzaileek, giza eskubideen hitzarmenak inbertsio-hitzarmenekin alderatuz, lehentasuna dutela adierazten dute. Hala ere, Nazioarteko Zuzenbideak ez du eskaintzen hori baieztatzeko oinarririk. Nahiz eta zuzenbide horretatik eratorritako obligazioek *erga omnes* izaera eduki, horrek ez die inbertitzailearen arauak baino estatus normatibo altuagorik ematen. Beraz, praktikan, organo arbitralek aukera erreal bakarra dute: inbertsio-tratatuak lehenestea, haien eskumen edo gai-eremua inbertsio-hitzarmenetako auziak argitzera mugatzen baita.

---

31. Eztabaida horren inguruko iritzi desberdinetan sakontzeko, ikus: Bhat, 2019, 2. gaia.

32. Egile askoren artean, hurrengoak nabarmentzen dira: Simma eta Kill, 2009: 695-6; eta/edo United Nations International Law Commission, 2006: 433-460.

33. Gurekin bat dator: Fahner & Happold, 2019: 741-759.

## 4.2. Giza eskubideen bermea ezbaian

Giza Eskubideen Zuzenbidearen aplikazioa aztertu ondoren eta arbitroen interpretazioak zeintzuk diren antzemandak, argi geratu da hirugarrenen giza eskubideen lekua txikia dela estatu-inbertitzaile arbitraje-prozesuan. Sistemaren ezaugarrietan eta egituran aurkitu ditugun zenbait faktore aipatuko ditugu jarraian, leku txiki hori are eta ñimiñoagoa egiten dutenak eta horien bermea ezbaian jartzen dutenak.

### 4.2.1. Gatazka foro neutralean ebaztea

Estatu-inbertitzaile arbitrajearen bereizgarriak aztertu ditugunean, ikusi dugu inbertitzaileari aukera ematen zaiola gatazka auzitegi nazionaletatik at konpontzeko, hots, arbitraje-prozesua deslokalizatzeko eta ematen zaiola. Horrela, gatazka auzitegi nazionaletatik at uzten da, ustez prozesuaren neutraltasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko. Baina, gatazkaren deslokalizazioaren ondorioak haratago doaz; izan ere, gatazka komunitate lokaletik ezeztatzeak herri-mugimenduen borroka eta akzio politikoa geldiaraztea eta desagerraraztea dakar. Esan dezakegu, hortaz, gatazka komunitate lokaletik at mantentzea komenigarria dela CIADIK egituratu duen sistemarentzat, herri-mugimenduen parte-hartzeak estatu-inbertitzaile arbitrajearen *status quo*a arriskuan jartzen duelako, estatu eta atzerriko inbertitzaileentzat bakarrik erreserbatuta baitago. Beraz, nahiz eta arbitrajearen kokapen fisikoa prozesuaren neutraltasun eta inpartzialtasunarekin lotu, konturatu behar gara herri-borroka izozteko nahi garbia ezkututzen dela atzean, herri-erresistentzia prozesutik kanpo utziz eta haien eskubideak hutsalduz<sup>34</sup>. Ondorio honetara helduta, baieztatu dezakegu gatazka foro lokaletik at ebaztea hirugarrenen giza eskubideen bermerako kaltegarria den faktorea dela.

### 4.2.2. Arbitroen aukeraketa, jatorria eta jarduna

Azaldu bezalaxe, estatu-inbertitzaile arbitrajearen aldeek arbitro bana aukeratzeko dute eta hirugarren arbitroa Administrazio Kontseiluko buruak hautatzen du. Aukeraketa-sistema horrek giza eskubideekin lotutako bi arazo nagusi ditu gure aburuz: batetik, aukeratzeko diren arbitroek Giza Eskubideen Zuzenbidearen inguruko ezagupen eskasa izaten dute normalean, arbitro gehienak Merkataritza Zuzenbideko adituak izaten baitira, Giza Eskubideen Zuzenbideko aferetan esperientzia oso murriztekoak. Bestetik, CIADIKo hitzarmenean arbitro izateko ezartzen diren baldintzak ez dira oso zurrinak, arbitroek bakarrik zuzenbidean, merkataritza-industrian eta finantzetan ezagupenak izatea galdatzen baitu. Hori horrela, haien aukeraketa moduak eta arbitroei galdatzen zaizkien baldintza eskasak giza eskubideen sustapen eta bermea kontuan hartzen ez duen inbertsio-arbitroen komunitate txiki bat sortzea eragin du. Komunitate horretako arbitroen jatorriari dagokionez, nahiz eta arbitraje-kasu gehienetan garapen-bidean dagoen herrialde bat egon, inbertsio-arbitro gehienak Estatu Batuetatik eta Europatik datoz, garapen-bidean dauden herrialdeetatik datozen arbitroen ehuneko oso txikia izanik. Esan bezala, erkidego nahiko txikia izanik, arbitro asko CIADIKo auzitegi askoren parte dira eta haien abokatutza-lana arbitroen lanarekin partekatzen dute, inbertsio-arbitroen

34. Hausnarketa honekin bat dator: Ciochinni eta Khoury, 2018: 990.



*club* informal bat sortuz (García-Bolívar, 2015: 154). Horren harira, *club* informal hori kontrolatzen duten hiru abokatu-bulego aipatzea ezinbestekoa da: *Freshfields Bruckhaus Deringer* (Erresuma Batua), *White & Case* (AEB) eta *King & Spalding* (AEB). Botere-egoera honek ospea ematen die bulego horiei eta horrek, era berean, kasu berriak erakartzen ditu; eta merkatu kontzentratu batera garamatza, ezarritako zirkulua osatzen ez duten bulegoak ezin baitira erraz sartu merkatu horretan.

Adituen arabera, CIADik erregistratutako 30 kasutik 25 abokatu-bulego horietako abokatu eta arbitroek erabakitzen dituzte. Hori horrela, Mendebaldekoak ez diren abokatuaren sinadurek ez dute mikrounibertso honetan sartzeko betarik<sup>35</sup>. Gainera, ezin ezkuta daiteke arbitro espezializatu hauek bereziki beren hurrengo izendapena ziurtatzeaz arduratuta egoten direla. Horren ondorioz, arbitroen ekintzak bideraturik egoten dira inbertitzaile eta enpresek berririo hautatuko dituztela segurtatzera. Horrela, esan dezakegu komunitate txiki honetan leku bat ziurtatzeko arbitroek enpresa multinazionalen balioei leialtasuna adierazi behar dietela beren erabakietan<sup>36</sup>. Horren harira, arbitroek berek onartu dute «ez dutela beren burua interes publikoaren bermatzaile gisa ikusten»<sup>37</sup>.

Honek guztiak oso eragin negatiboa du giza eskubideen sustapen eta babesean; izan ere, arbitroen zeregina garrantzi handikoa da, haien esku baitago inbertsio-tratatuen interpretazioa. Inbertitzaileari eskaintzen zaizkion babes-arauak edo klausulak zehaztugabeak izaten dira askotan, hori dela eta, berdintasuneko edo zilegizko tratua edo desjabetzen gainera erabakiak hartzeko garaian, arbitroen interpretazio-boterea handia izaten da. Planteamendu honi gaineratu behar zaio arbitroek ez diotela ezein jurisprudentziari jarraitu behar edo aurrekari judizialei men egin behar. Gatazkak kasuz kasu ebazten dira, sistemaren legitimazioa ez baita aurreko egoeretako erabakien koherentzia euskarrizten, estatuaren eta atzerriko inbertitzailearen onespenean baizik<sup>38</sup>. Horrenbestez, arbitroen interpretazio-askatasun hau kontuan hartuz, haien jatorria eta sortu duten *lobby* aintzat hartuz, giza eskubideen bermea eta sustapena haien helburuetatik oso urruti geratzen dela baieztatu genezake.

#### 4.2.3. Estatu hartzailearen subiranotasunaren mugapena

Inbertsio-arbitrajearen bereizgarriak aztertzean, argi geratu da, estatuak BIT bat sinatzen dutenean, beren subiranotasuna mugatzen ari direla. Nahiz eta inbertsio-arbitrajearen protagonistak inbertitzaileak direla iruditu, ez da horrela, prozesu guztia estatuak sinatzen dituzten BITekin hasten baita. Aintzatesi behar dugu, hori egitean, estatuak beren subiranotasuna mugatzeko adostasuna ematen dutela, interes publikoa gailendu ordez, kapitalaren eta inbertitzailearen interesak lehenetsiz. Izan ere, BITa sinatu eta aintzatestean, klausula arbitrara haren sistema legalean barneratzea onesten dute, hots, estatuak onesten eta ahalbidetzen dute atzerriko

35. Inbertsio-arbitrajearen diharduten arbitroen monopolioaz gehiago jakiteko: Olivet eta Eberhardt, *op.cit.*, 22. or.

36. Horrela nabarmentzen du, Gabisa, H., *op.cit.*, 160 or.

37. Kasik hitzez hitz: Park eta Alvarez, 2003: 394.

38. Jurisprudenzia arbitral sendo bat ez egotea, inbertsio-arbitrajeari egiten zaion kritika nagusiatarikoa da, horrela nabarmentzen eta adierazten du: Ciocchini eta Khoury, *op.cit.*, 988. or.

inbertitzaile batek nazioarteko inbertsio-arbitraje organo batean demandatuak izatea. Horren emaitza, azken 20 urteetan, milioi askoko demandak tarteratu dira legeria publikoen ustezko ondorio kaltegarrien aurka. Batzuetan, demanda baten mehatxua nahikoa izan da gobernuaren neurriak izozteko, eta politikak formulatzeko gobernu-arduradunak konturatu dira haien herritarren ongizatea babesteko atzerriko inbertitzaileak konpentsatu behar dituztela ordainean<sup>39</sup>. Hori guztia kontuan harturik, inbertitzailea protagonista nagusia dela pentsatzea apur bat paradoxikoa da, estatua baita baldintza legal eta materialak sortu eta mantentzen dituena, atzerriko inbertitzaileak haren eremuan jardun dezan. Esan dezakegu, inbertsio-hitzarmenak sinatzean eta arbitraje-baldintzak onartzean, estatuak deabruak infernua demandatu ahal izatea onesten dutela. Horren harira, Fernández-Armesto arbitro espainiarraren hitzak gogora ekartzea ezinbestekoa dakusagu: «Gauean esnatu eta arbitrajea pentsatzen dudanean, estatu subiranoek inbertsio-arbitrajea onartu izanak ahoa bete hartzeko uzten nau oraindik [...]. Hiru partikularri ahalmena ematen zaie gobernuaren ekintza guztiak, epaimahaien erabaki guztiak eta lege guztiak berrikusteko, inolako murrizketarik edo apelazio-prozedurarik gabe» (Eberhardt, 2016: 29).

Egia da zenbait estatu sistemaren injustizien eta inkoherentzien kontzientzia hartzen hasi direla, eta sistematik alde egiten saiatzen ari direla. 2011ko udaberrian, Australiako Gobernuak jakinarazi zuen bere merkataritza-itunetan ez zuela estatu-inbertitzaile arbitrajeari buruzko xedapenik sartuko. Boliviak, Ekuadorrek eta Venezuelak hainbat BIT amaitu dituzte, eta CIADItik alde egin dute, mezu politiko argia bidalita: ez dute erakunde horretako kide izan nahi etorkizunean. Halaber, Argentinak inbertsio-demanda ugari izan ditu (2001eko ekonomia-krisiaren testuinguruan hartu zituen salbuespen-legeen ondorioz), eta ez ditu laudoak ordaindu nahi. Beraz, nahiz eta estatu batzuk beren jarrera aldatzen hasi, argi dago bide luzea dagoela aurretik, eta herrialde garatuetakoko estatu gehienak sistema bermatu eta mantentzearen aldekoak direla.

#### 4.3.4. Gardentasun eta parte-hartze publikorik eza

Inbertsio-arbitrajearen konfidentzialtasunari loturik, gardentasun eta parte-hartze publikorik ezaren arazoa dugu. Nahiz eta arestian aipatu moduan, arbitraje motaren eta aldean nahien arabera prozesuaren gardentasun-maila aldatu, orokorrean audientziak ez dira publikoak izaten. Prozesuen publikotasun falta horrek oso eragin negatiboa du giza eskubideen babesean; izan ere, arbitraje-kasu asko gizarteari zuzenki eragiten dioten gaien ingurukoak dira, eta bertan hartzen diren erabakiek herritar guztiak kaltetu ditzakete, nahiz eta beraiek jakinaren gainean ez egon. Halaber, parte-hartze publikorik eza inbertsio-arbitrajeari eginiko kritika nagusia da<sup>40</sup>. Aipatu behar dugu, azken hamarkadetan, geroago azalduko dugun moduan, *amicus curiae* edo prozesuaren parte ez den hirugarren baten argumentuak onartzen hasi direla arbitrajeen izapidetzean. Hala ere, praktikan, nahiz eta arbitroak hirugarren protagonista horien arrazoiketak onartzen hasi, konfidentzialtasun-muga handiak dituzte.

39. Ideia horren ildotik: Olivet eta Eberhardt, *op.cit.*, 16. or.

40. Arbitraje-prozesuan hirugarrenen parte-hartze eta interes publikoaren bermerik eza ongi aztertzen du, besteak beste: Tienhaara, 2007 eta/edo Marengo, 2018.

#### 4.3.5. Inbertitzaileak arbitrajearen onuradun nagusiak

CIADiko estatuen eta atzerriko inbertitzaileen arteko gatazkak konpontzeko arbitraje-sistema aztertu ondoren, inbertitzaile atzerritarri abantaila ugari eskaintzen dion sistema dela baieztatu genezake: kalte-ordainak eskatzeko legitimazioa inbertitzaile atzerritarrek bakarrik dute; arbitraje-organoa arbitroz mozorrotutako interes korporatiboak dituzten abokatuek osatzen dute eta, gainera, ez dago laudoa apelatzeko aukerarik. Baieztapen hori indartzeko datu estatistikoetan oinarrituko gara<sup>41</sup> eta begiratuko dugu ea CIADiko auzitegiek laudoak ematean aintzat hartzen dituzten inbertitzailearen eskaerak edo estatu hartzailearen alegazioak. 2019ko zerga-ekitaldian, CIADik amaitutako 59 prozesu erregistratu zituen, aurreko urtearekin alderatuta, 13 kasu gehiago. Horietatik 34 arbitraje-prozesu izan ziren eta inbertitzailearen eskaerak partzialki zein osoki onetsi zituzten laudoen ehunekoa handiagoa da. Egia da, aurreko urteetako estatistikei begirata, inbertitzaileen eta estatuen arteko irabazitako kasuen portzentajeak oso parekatuak direla eta batzuetan estatu hartzailearen laudoen ehunekoa handiagoa dela. Estatistikak direnak direla, kontuan hartu behar dugu estatu-inbertitzaile kasuak urtero hazten direla, hots, inbertitzaileek urtero geroz eta demanda gehiago tarteratzen dituztela estatu hartzaileen kontra. Beraz, inbertitzaileek sistema hau aukeratzen badute eta urtero erreklamazio gehiago tarteratzen badituzte, argi dago inbertitzailearentzat sistema onuragarria dela.

Gainera, aintzat hartu behar dugu inbertitzaile gehienak enpresa multinazional handiak eta oso botereitsuak izaten direla. BITek ahalbidetzen dute multinazionalen pertsona juridiko guztiek Inbertsio Zuzenbidearen nazioarteko babesa izatea, estatu hartzailearen nazionalitate bereko pertsona juridikoak atzerriko inbertitzailetzat jo daitezkeela onesten baitute, enpresaren erregistro-tokia kontuan hartu gabe. Horren harira, abusuzko praktika bat ohikoa bihurtu da, *treaty shopping* delakoa. Multinazionalen pertsona juridikoen nazionalitate anitzen egitura aprobetxatuz, inbertitzaileak estatu hartzailearen aurrean onura gehien dakarkion BITa aukeratzen du. Ondoren, BIT hori estatu hartzailearekin zein estatuk sinatu duen begiratu eta pertsona juridiko bat erregistratzen du estatu horretan. Pertsona juridiko berri horren bidez egiten da inbertsioa eta atzerriko inbertitzailearen nazioarteko babes bera edukiko du. Hau ikusirik, inbertsio-tratatuek eta horietatik eratorzen den arbitraje-sistemak enpresa multinazionalak eta haien interesak aurrera eramateko gehiegizko edo abusuzko praktikak dakartzatela baieztatu genezake, zuzenbide-estatuaren dekadentzia ekarri eta kapital-pilaketa oinarri duen sistemaren biziraupena bermatuz<sup>42</sup>.

Azkenik, azpimarratu behar da inbertitzaile gehienek garapen-bidean dauden herrialdeetan inbertsioak egiten dituztela, haien ekonomia suspertzeko aitzakiarekin. Hala ere, ikusi dugu inbertsio askok estatu askoren garapena sustatu ordez, kaltetu egin dutela, esaterako, ingurugiroa kutsatzen duten inbertsioak eginez. Horrenbestez, galdera argia (eta, inozoegiak ez izateko, erretorikoa) da: zein da inbertitzailearen benetako asmoa? Aldi berean, CIADI erakunde independente, neutral eta despolitizatu bezala definitzen da, inbertsio-fluxu zuzenen sustapena eta

41. UNCTAD (2019): *Investment Policy Hub*.

42. Ideia honen defendatzailea dugu: García-Bolívar, 2015: 150.

ekonomiaren garapena bermatzeko sortu dena. Argi dago, ekonomiaren garapena sustatzeko inbertsio-fluxu zuzenak erakartzeak kontrako eragina ekar dezakeela ekonomian, garapenaren bidean, atzerantz eginez, estatu hartzaileen populazioaren giza eskubideen kaltetan.

## 5. Inbertsio-arbitrajearen etorkizuneko erronkak giza eskubideen arloan

### 5.1. Orain arte eman diren pausoak

#### 5.1.1. *Amicus curiae*-ren onarpena

Parte-hartze publikorik ezaren arazoaren aurrean, azken urteetan, azaldu bezalaxe, inbertsio-arbitrajearen prozesuaren alderdi ez diren hirugarrenen parte-hartzea egonkortu da, haien behaketak idatziz aurkezteko, zenbait dokumentu prozesal eskuragarri izateko edo/eta audientzia publikoetan egoteko aukera emanez. CIADiko Arbitraje Arauaren 37.2 artikuluan oinarrituta, prozesuaren alderdi ez diren pertsona edo erakundeen parte-hartzea onartzen da<sup>43</sup>. Hala ere, adierazi behar da arbitroen azken erabakietan haien ikuskera eta argumentuak ez direla aintzat hartzen, eta kontuan hartzekotan, oso modu apalean egiten dela. Momentura arte, arbitraje-auzitegiek *amicus curiae*-ren behaketen erabileraren inguruan oso jarrera zuhurra izan dute. Egia da arbitroek haien elkarlana eskertzen dutela, baina laudoen zuzenbide-oinarrietan oraindik ez dituzte hauen behaketak txertatu.

#### 5.1.2. *Belaunaldi berriko BITak*

Inbertsio-arbitrajearen gardentasun faltaren, parte-hartze publikorik ezaren eta neutraltasun faltaren aurrean, estatu hartzailearen eta inbertitzaile atzerritarren artean interes-oreka bat bilatzeko, estatuak BIT berriak birnegoziatzen hasi dira. Aurreko urtean, NBERen estatu-inbertitzaile arbitraje-prozesua aldatzeko aukera eztabaidatu zen. Hala eta guztiz ere, egungo sistemak dakartzan kalte sozial eta ingurunekoei buruzko azterketa bat egitea baztertu zen. Eztabaida, batik bat, eraginkortasunean, kostuen murrizketan eta inbertsio-arbitrajearen eskuragarritasunean oinarritu zen. Hala ere, egia da BIT berriek, egindako inbertsioaz gain, hitzaurrean beste zenbait gai aipatzen dituztela (ingurugiroaren babesa, giza eskubideen bermea...), baina indar loteslerik gabeko aipamenak besterik ez dira, inbertsio-arbitraje prozeduran inongo aplikagarritasunik ez dutenak. Beraz, esan dezakegu, nahiz eta pauso bat den, inbertsio-hitzarmenetan giza eskubideei buruzko aipamenak egitea ez dela nahikoa, tratatuen helburua aldatzen ez den bitartean egiten diren erreformek ez baitute aldaketa errealik ekarriko<sup>44</sup>.

### 5.2. Etorkizunera begira *lege ferenda* proposamenak

Inbertsio-arbitrajea eta giza eskubideen bermea bateragarriak izan daitezen, *lege ferenda*, honako neurriak proposatzen ditugu: inbertsio-tratatuetan giza eskubideen irismena birdefinitzea, Giza Eskubideen Zuzenbidean adituak diren arbitroak

43. Sakontzeko: Pascual, 201: 377.

44. Gure ikuskerarekin bat dator, Ciocchinni eta Khoury, *op. cit.*, 988.-991. or.

aukeratzea, giza eskubideen aholkularitza bat sortzea eta laudoak aurkaratzeko mekanismo bat sortzea. Jarraian, banan-banan proposamen horiek aztertuko ditugu.

### 5.2.1. Inbertsio-tratatueta giza eskubideen irismena birdefinitzea

Azaldu bezalaxe, inbertsio-arbitrajea inbertsio-hitzarmenetako klausula arbitraletik eratortzen da. Abiapuntua beraz, inbertsio-tratatueta dago. Hori horrela, lehenengo pausoa izango da inbertsio-hitzarmen horien edukia birdefinitzea, giza eskubideak kontuan har ditzaten. Horretarako, neurri hauek proposatzen ditugu: 1) BITeko arbitraje-klausuletan, giza eskubideen hitzarmenak txertatzea; 2) giza eskubideen babesa bermatzen duten obligazio konkretuak egozte inbertitzaileari: giza eskubideen eta ingurugiroaren eraginaren ingurukoak edo osasunarekin, lanarekin, zerga-sistemarekin... lotutako estatu hartzaileko legeak betetzea<sup>45</sup>. Neurri horiez gain, inbertsio-hitzarmenek babesten dituzten inbertsioek eraginkorrak eta jasangarriak izan behar dute ingurugiroarekin eta pertsonen giza eskubideekin. Hori horrela, estatu hartzailearen garapen ekonomiko eta sozialarentzat onuragarriak ez diren inbertsioei babesa ukatu behar zaie, inbertsio hori ez baita bateragarria izango estatuaren politika publikoekin. Beraz, inbertsio eraginkorrak egitea proposatzen dugu, nazioarteko inbertsio-erregimenaren helburuak giza ongizatea errespetatzen duen garapen-eredu bat sustatzea izan behar duelako.

### 5.2.2. Giza Eskubideen Zuzenbidean adituak diren arbitroen aukeraketa

Aurretik adierazi dugun neurria, hots, inbertsio-tratatuak giza eskubideak aintzat hartuz diseinatzea, arbitroek giza eskubideen legeen hedadura kontuan hartzeko duten gaitasunari loturik doa, arbitroei baitagokie inbertsio-tratatuaren interpretazioa. Arestian aipatutako arbitroen *club* informal horretan nekez aurki dezakegu Giza Eskubideen Zuzenbidean aditua den norbait. Are gehiago, estatu-inbertitzaile kasuen % 55 hamabost arbitrok osaturiko elite batek ebazten ditu.

Arbitro horiek eramaten dituzten kasuen kopuruak haien influentzia eta boterearen isla dira. Landau arbitro profesionalak «superarbitro»tzat eta arbitroen *club*-eko barneko mafia txikitzat jotzen ditu (Olivet eta Eberhardt, *op. cit.*: 38). Gaur egungo inbertsio-arbitraje sistema ustelaren biziraupena arbitroen mafiari egotz diezaiokegu. Egoera hau aldatu beharra dago, arbitroen inpartzialtasuna errealitate bihur dadin eta sistemak zilegitasuna izan dezan. Horretarako, arbitraje-erregelamendu eta arauetan, arbitroei baldintza zorrotzagoak galdatzea proposatzen dugu: Giza Eskubideen Zuzenbidearen gutxieneko ezagutza frogatzea adibidez. Halaber, kasuak munduko herrialde desberdinetako arbitroek aurrera eraman beharko dituzte, herrialde garatuetako arbitroen menpekotasun eta boterea ezabatzeko. Esandako gutzia errealitatean aurrera eramatea zaila izan daitekeenez, beste aukera bat proposatzen dugu, alegia, arbitroek beste aditu edo agentzia batzuei (giza eskubideen hitzarmenetan adierazten diren erakundeei, auzitegjei, Giza Eskubideen Zuzenbidean adituak direnei... ) kontsultak egiteko aukera izatea, interpretazio egokiagoak egin ditzaten<sup>46</sup>.

---

45. Neurri hauen defendatzailea dugu: Cabezas, 2019: 65-66.

46. Ideia honekin bat dator: Peterson, *op. cit.*, 45. or.

### 5.2.3. Giza eskubideen aholkularitza bat sortzea

Aurreko bi neurriei loturik, giza eskubideen aholkularitza bat sortzea proposatzen dugu. Izan ere, ikusi dugun moduan, eskubide ekonomiko eta sozialen aplikagarritasuna beti izan da zalantzaragarria estatu-inbertitzaile arbitraje-prozesuan. Arbitroek giza eskubideen legeak arbuia ez ditzaten, *lege ferenda* arbitraje-prozesua hasi baino lehen kasuaren oinarri den inbertsio-tratatua nahi eta nahi ez giza eskubideen aholkularitza bat igarotzea proposatzen dugu.

Proposatzen dugun aholkularitzaren xedea hau izango da: estatu hartzailearen obligazio ekonomiko eta sozialak zeintzuk diren zehaztea eta horietako zeintzuek talka egin dezaketen inbertitzailearen babes-arauekin finkatzea. Behin hori zehaztuta, inbertitzaileari ohartaraziko zaio haiei egotzitako babes-arauek obligazio horiek aintzat hartuz zehaztuko direla, arbitroen interpretazio-gaitasuna murriztuz. Modu horretan, atzerriko inbertitzaileak hobeto aurreikus eta presta litezke, estatu hartzaileek haren giza eskubideen gaineko betebeharrak ekonomiko eta sozialak zaintzeko hartu ahal izango lituzketen neurrietarako, aurretik bateraezintasunen inguruan ohartarazi baitzaie. Era berean, estatu hartzailea ez litzateke behartuta sentituko bere politika publikoen agenda murriztera inbertitzailearen eskubideen mesedetan<sup>47</sup>. Aholkularitza honen xede nagusia, hortaz, estatu hartzaileek haien nazioarteko obligazioak betetzeagatik atzerriko inbertitzaileei kalte-ordain bat ematea ekiditea da, inbertitzaileei ohartaraziz arbitraje-prozesuan estatu hartzailearen obligazioak lehenetsiko direla. Kontuan hartuz, lehen aipatu dugun moduan, aukeraturiko arbitroak giza eskubideen babesarekin kontzientziatuta eta sentsibilizatuta egongo direla, inbertitzaileek ez lukete hain erraz joko estatu-inbertitzaile arbitrajera, garaipena eta konpentsazio ekonomikoa ez baitzaie bermatzen, egungo sisteman kasu gehienetan gertatzen ez den bezala.

### 5.2.4. Inbertsio-arbitraje laudoak aurkaratzeko mekanismo bat sortzea

Gaur egungo sisteman ez da ematen laudoak aurkaratzeko aukerarik. Horrenbestez, estatu hartzaileek askotan, beren herritarren osasuna, lana edo ingurugiroa babesteko harturiko politika publikoak aplikatzearen ondorioz, milioika eurotan baloratutako kalte-ordainak ordaindu behar izan dizkiete inbertitzaileei, inbertsio-tratatueta zehazturiko obligazioen bati (edo gehiagori) muzin egin diotelako. Bidezkoa ez den egoera honekin amaitzeko, inbertsio-arbitrajean laudoen helegiteak tarteratzeko auzitegi bat sortzea proposatzen dugu. Sistemak honela funtzionatuko luke: CIADiko arbitraje-uzitegiak laudoa emango luke, eta erabaki hori helegiteko aukera, helburu hau berariaz betetzeko sortutako nazioarteko auzitegi egonkor bati egotziko genioke. Egia da inbertsio-tratatu batzuek aukera ematen dietela estatu sinatzaileei erakunde horiek sortzeko, baina momentuz ez da horrelakorik gertatu. Neurri honek sistemaren zilegitasuna handituko luke, laudoei koherentzia eta neutraltasun handiagoa emanez, horiek gainbegiratzeko aukera ematen baita<sup>48</sup>. Aurkaratzeko mekanismo bat edukitzeak, inbertitzaileei ordaindu beharreko kalte-ordain ez-bidezkoen aurrean, estatu hartzailearen defentsa-eskubidea handituko luke. Horrek, estatuen giza eskubideen babesaren obligazioa betetzea sustatuko

47. Honen harira: Simma, 2011: 595.

48. Gurekin bat dator: García-Bolívar, 2015: 158.

luke, ez baitituzte beren politika publikoak izoztuko, estatu-inbertitzaile demanda baten mehatxuaren aurrean, beren burua defendatzeko aukera baitute.

## 6. Gibel solasa

Orain bai, gure hasierako hipotesia tesi bihurtuz, inbertsio-arbitrajearen prozesua giza eskubideen ikuspegitik aztertu ostean, baieztatu dezakegu bertan ez direla giza eskubideak errespetatzen. Egoera bidegabe honen aurrean, zenbait erreforma-proposamen aurkeztu berri ditugu: inbertsio-tratatuetan giza eskubideen irismena birdefinitzea, Giza Eskubideen Zuzenbidean adituak diren arbitroak aukeratzeko, giza eskubideen aholkularitza bat sortzea eta inbertsio-arbitraje laudoak aurkaratzeko mekanismo bat sortzea. Azaldu ditugun erreforma hauek guztiak gaur egungo arbitraje-sisteman giza eskubideen babesa areagotzeko neurriak dira, bide batez, sistemaren neutraltasuna eta inpartzialtasuna handitzea ekarriko luketenak. Aldaketa horiek ikuspuntu juridiko batetik aztertuta bideragarriak direla pentsatzen dugu. Hala ere, korporazioaren munduaren eta arbitraje-industria gehienaren erresistentziari aurre egin behar izango diote, haien irabaziak murrizteko edozein saiakeraren aurka baitaude. Hori dela eta, aldaketa hauek ezinbestean estatuak proposatu eta sustatu behar dituzte. Inbertsioetan espezializatutako abokatuek, arbitroek, korporazio handiek... gaur egungo sistemari etekin ekonomiko handia atera diote; beraz, litekeena ez da ordena zalantzan jartzen duten aldaketak egitearen alde agertzea. Beraz, estatuen paperak berebiziko garrantzia du, aldaketen motorra baitira.

Hala eta guztiz ere, adierazi beharra dago neurri horiek ez direla aski izango nazioarteko inbertsio-erregimenaren bidegabekeria bortitzenari aurre egiteko: atzerriko inbertitzaileen legitimazio aktibo eskusiboa. Ildo horri jarraituz, kontuan hartu behar dugu, estatu hartzaileek, giza eta ingurumen-eskubideak urratzen direnean adibidez, ez dutela erakundeen zigorgabetasun korporatiboari aurre egin ahal izateko mekanismorik. Hori aintzat hartuta, estatu hartzaileei giza eskubideen urraketa baten aurrean estatu-inbertitzaile arbitraje-prozesu bat hasteko aukera eman beharko litzaieke. Azken baieztapen hori, jakina denez —ez gara inozoak—, utopiatik errealitate bakoitzetik baino askoz ere hurbilago dago. Haatik, proposatu ditugun neurri horiek guztiak martxan jartzen baditugu, gaur egun utopiatzat jotzen dugun hori errealitate bihurtu daiteke. Ezina ekinez egina.

Hau guztia azaldu ondoren, argi dago (ez da izango ez dugulako esan!) gaur egungo estatu-inbertitzaile arbitrajea egituratuta dagoen moduan, giza eskubideen babesa bermatzea baino gehiago, inbertitzaileen interesak eta nazioz gaindiko enpresen kapital-interesak babestea helburu duela. Beraz, sistemaren egituraketa-arazo bat dugula baieztatu dezakegu. Hala ere, hau onartzea estatu bakoitzaren erabakia da. Hori horrela, giza eskubideen bermea areagotu nahi badugu, erreforma guztiek estatuen jarrera-aldaketa bati lotuak joan behar dute, estatuak deabruak infernua demandatu ahal izatea onetsi ordez, deabruak zeruan demandatzea ahalbidetzen duen sistema bat sortzeko.

## 7. Bibliografía

- Alvarez, J. (1997): «Critical Theory and the North American Free Trade Agreement's Chapter Eleven», *Inter-American Law Review*, 28.
- Bhat Suresh, B. (2019): «A Study of the Issue of —Relevant Rules— of International Law for the Purposes of Interpretation of Treaties under Article 31(3)(c) of the Vienna Convention on the Law of Treaties», *International Community Law Review*, 22.
- Blackaby, N. eta Camargo García, A. (2008): «Alternativas de reparación en el arbitraje internacional de inversiones —un debate entre la teoría y la práctica», *ACDI: Anuario Colombiano de Derecho Internacional*, 1.
- Beserman Balco, M.S. (2015): «Una mirada a favor de las alegaciones sobre Derechos Humanos en el Arbitraje de Inversión», *Arbitraje PUCP*, 5.
- Bohoslavsky, J.P. eta Justo, J.B. (2015): «Inversiones extranjeras y derechos humanos: entre la permanencia y el cambio», *RSTPR: Revista de la Secretaría del Tribunal Permanente de Revisión*, 5.
- Cabezas, V.D (2019): «Human Rights and BIT: Intersections and collisions», *Iuris Dictio*, 23.
- Choukroune, L. (2016): *Judging the state in international trade and investment law: Sovereignty modern, the law and the economics (International law and the global south, perspectives from the rest of the world)*, Springer, Singapore.
- Cîrlig, R.E. (2016): «Business and human rights: From soft law to hard law?», *Juridical Tribune Journal*, 2.
- Ciocchinni, P eta Khoury, S. (2018): «Investor state dispute settlement: Institutionalising “corporate exceptionality”», *Oñati Socio-Legal Series*, 8. bol., 6. zk.
- De Zayas, A. (2016): «La falta de ética en el sistema de arbitraje internacional entre empresas y Estados soberanos», *Contexto*, 62.
- Dorín, N. (2012): «Inversiones extranjeras en el marco de los Tratados Bilaterales de promoción y protección de Inversiones. El CIADI como arbitraje institucional internacional», *Congreso de Derecho Público para estudiantes y jóvenes graduados «DEMOCRACIA Y DERECHO»*, UBA, Argentina.
- Eberhardt, P. (2016): «El ISDS Zombie: Renombrado como ICS, el derecho de las multinacionales para demandar a los Estados se niega a morir», *Corporate Europe Observatory and Transnational Institute*.
- Echaide, J. (2014): «Sobre el derecho humano al agua y la fragmentación del derecho internacional: el régimen internacioal de protección de inversiones vis-avis las obligaciones erga omnes en materia de derechos humanos», *Ambrosio L. Gioja ikerketa erakundearen aldizkaria*, 12.
- , (2016): «Demandas en el CIADI y el derecho humano al agua: ¿tratados de inversión vs. derechos humanos?», *International Law*, 29.
- Edgardo, L. (1999): «El Acuerdo Multilateral de Inversiones (MAI): El capital diseña una constitución universal», *Estudios Latinoamericanos*, 11.
- Fach Gómez, K. (2009): «La protección del medio ambiente y el comercio internacional: ¿hay que pensar en verde’ el arbitraje de inversiones?», *Munich Personal RePEc Archive*.
- Fahner, J. eta Happold, M. (2019): «The human rights defence in international investment arbitration: Exploring the limits of systemic integration», *The International and Comparative Law Quarterly*, 3.
- Feldstein de Cárdenas, S.L. (2010): «Arbitraje e Inversiones Extranjeras», *CAEI: Centro Argentino sobre Estudios Internacionales*.
- Gabisa, H. (2014): «The fate of international human rights norms in the realm of bilateral investment treaties (bits): Has humanity become a collateral damage?», *The International Lawyer*, 2.



- Gallardo, R.A (2014): «El futuro próximo del arbitraje de inversiones en Colombia», *Misión Jurídica*, 7.
- García-Bolívar, O. (2015): «La crisis del derecho internacional de inversiones extranjeras: Propuestas de reforma», *Revista de la Secretaría del Tribunal Permanente de Revisión*, 5.
- Goez Aguilar, M.I eta Uribe Botero, A. (2016): « El Arbitraje de las Inversiones y su influencia en el Desarrollo Sostenible», *Journal of International Law*, 1.
- Gutiérrez, A. (2019): «Régimen de solución de controversias (arbitraje) en los Tratados bilaterales de inversión (TBI)», *Estudios de derecho administrativo*, 20.
- Hernández, J.I. (2016). «El arbitraje internacional de inversiones desde el derecho administrativo global», *FORO*, 53.
- Karamanian, S. (2017): «The role of international human rights law in re-shaping investor-state arbitration», *International Journal of Legal Information*, 1.
- Kundmüller Caminiti, F. (2009): «Apuntes sobre el Derecho Internacional de las Inversiones y el Interés Público», *PUCP Zuzenbide Administratiboko aldizkaria*.
- Latham eta Watking (2013): *Guía de arbitraje internacional*.
- Latorre Boza, D. (2016): «El derecho internacioal de los derechos humanos y el derecho internacional de las inversiones: una relación dialéctica», *Arbitraje PUPC*, 6.
- López Montreuil, U.; Garcés García, A. & Dibos Figueroa, E. (2019): «Mezclando manzanas con naranjas o cómo reconvenir violaciones de derechos humanos en arbitrajes de inversión», *Forseti*, 10.
- Marengo, F. (2018): «Transparencia en arbitraje de inversión internacional», *Argentinako Administrazio Publikoaren erregimenaren aldizkaria*, 478.
- Muchlinski, P. (2006): «Caveat Investor? The Relevance of the Conduct of the Investor Under the Fair and Equitable Treatment Standard», *International and Comparative Law Quarterly*, 55.
- Olivet, C. eta Eberhardt, P. (2013): «La industria del arbitraje de inversiones: el lucrativo negocio de la injusticia», *Corporate Europe Observatory y Transnational Institute*.
- Omar, E. (2015): «La crisis del derecho internacional de inversiones extranjeras: Propuestas de reforma», *RSTPR: Revista de la Secretaría del Tribunal Permanente de Revisión*, 3.
- Oraá Oraá, J. eta Gómez Isla, F. (2008): *Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Ordeñana Gezuraga, I. (2009): *Análisis crítico del arbitraje laboral y su entorno en I ordenamiento jurídico español*, Thomson Reuters.
- , (2017a): «Bienvenidos arbitraje comercial y de inversiones y resto de mecanismos extrajurisdiccionales al Derecho jurisdiccional diversificado, rama del Derecho que ordena la solución de los conflictos jurídicos», *Arbitraje: revista de arbitraje comercial y de inversiones*, 3.
- , (2017b): *La Declaración Universal de los Derechos Humanos: ayer, hoy y mañana*, Thomson Reuters Aranzadi.
- Ortega, V. eta Gonzáles, C. (2009): «Arbitraje de inversiones (2003-2007)», *Precedente aldizkari juridikoa*.
- Park, W. eta Alvarez, G. (2003): «The New Face of Investment Arbitration: NAFTA Chapter 11», *The Yale Journal of International Law*, 28.
- Pascual, F.J (2009): «El arbitraje de inversiones en los recientes APPRI españoles», *REEL: Revista electrónica de estudios internacionales*, 18.
- , (2011): «La institucion del amicus curiae y el arbitraje de inversiones», *Anuario español de derecho internacional*, 27.
- Peterson, L.E (2009): *Derechos humanos y tratados bilaterales de inversión*, Centro Internacional de Derechos Humanos y Desarrollo democrático, Montreal.

- Perales Sarela, E. (2020): «Las empresas europeas y el arbitraje internacional ante el CIADI: el caso de América Latina», *Revista de estudios europeos*, 75.
- Perez, S.(2010): «Las operaciones de control societario ante el arbitraje internacional en materia de inversiones extranjeras: notas a propósito del caso Camuzzi International Vs. República Argentina», *REDUR*, 8.
- Perry, S. (2011): «Arbitrators and human rights», *Global Arbitration Review*.
- Prieto, G. (2012): «Evolución del Derecho internacional de inversiones: hacia un régimen global estable», *FORO*, 17.
- Quintero Solórzano, J.F (2017): «Los tratados bilaterales de protección de inversiones y su sometimiento a los derechos humanos y un breve excursus para el caso colombiano», *Estudios Socio-Jurídicos*, 2.
- Remón, J.; Virgós, M.; Bottini, G.; López de Argumedo, A. eta Fatás, J.M (2017): «Posturas encontradas en el arbitraje de inversiones», *H MI*, 71.
- Rey Vallejo, P. (2007): «El arbitraje de inversiones y los retos de la globalización», *Derecho Privado aldizkaria*, 38.
- Sangaweswaran, P. (2018): «Human Rights vs Contract Law in Arbitration Mechanisms», *Economic and Political Weekly*.
- Sanz-Pastor, C. (2007): «Arbitraje internacional: del arbitraje comercial internacional al arbitraje de protección de inversiones», *Revista de la Corte Española de Arbitraje*, 2007.
- Segura, M.B. (2014): «Arbitraje de inversión: ¿Un incentivo para la inversión extranjera directa?», *Derecho privado aldizkaria*, 51.
- Simma, B. (2011): «Foreing investment arbitration: a place for human rights?», *International and Comparative Law Quarterly*, 3.
- Simma, B. eta Kill, T. (2009): «Harmonizing Investment Protection and International Human Rights: First Steps Towards a Methodology», in C. Binder *et al.* (ed.), *International Investment Law for the 21st Century: Essays in Honour of Christoph Schreuer*, Oxford University Press, Oxford.
- Steininger, S. (2018): «What's human rights got to do with it? An empirical analysis of human rights references in investment arbitration», *Leiden Journal of International Law*, 1.
- Tienhaara, K. (2007): «Third Party Participation in Investment-Environment Disputes: Recent Developments, Review of European», *Comparative and International Environmental Law*, 2.
- United Nations International Law Commission (2006): *Fragmentation of International Law: Difficulties Arising from the Diversification and Expansion of International Law*, abrilaren 4ko A/CN.4/L.682 dok.
- United Nations Conference on Trade and Development (2001): «Social Responsibility», *UNCTAD Series on issues in international investment agreements*.
- Velázquez, R.A (2016): «Las inversiones extranjeras, el desarrollo sostenible y el derecho humano al agua: un conflicto no resuelto», *Revista de Derecho, Agua y sostenibilidad*, 0.
- Wythes, A. (2010): «Investor-state arbitrations: Can the fair and equitable treatment clause consider international human rights obligations?», *Leiden Journal of International Law*, 1.
- Zubizarreta, Hernández J. (2016): «Tratados vulneran el sistema internacional de los derechos humanos», *SERVINDI*.

## **Datu-baseak**

UNCTAD (2019): *Investment Policy Hub*, <<https://investmentpolicy.unctad.org/>>.

## **Grafikoen iturriak**

ICSID *Caseload Statistics*, 2019-2.  
2019ko CIADlren urteko txostena.

